

“Zinebi Express” LEHIAKETA

OINARRIAK

I. HELBURUA ETA DATAK

“Zinebi Express” laburmetraien lehiaketa azaroaren 14, 15 eta 16rako antolatuko da (larunbata, igandea eta astelehena). Antolatzaileak Bilboko zine eskolak izango dira: Kinema, Imval, Iefps-Gblhi Tartanga, Claro de Luna, Ikusentzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saila Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Arte Ederretako Fakultatea.

II. PARTE-HARTZEA

Jaialdia zuzendariei, talde teknikoari eta edozein nazionalitateko talde artistikoei irekita egongo da. Proiektu bakarra aurkeztu ahal izango da zuzendari bakoitzeko.

III. GAIA

Laburmetrai guztiak “**Bilbo eta Itsasadarra**” gaian oinarritu beharko dira.

IV. IZEN-EMATEA

Parte-hartzaileek Izena Emateko Eskatera bat bete ahal izango dute azaroaren 14an 9:00etatik 11:00etara, El Ensanche Merkatuan. Eskera ez dira mugatuak izango. Izen-ematearekin batera parte-hartzaile bakoitzari HDV/DV zinta bat entregatuko zaie.

V. ZINE ESKOLETAKO LAGUNTZA

Kinema, Imval eta Iefps-Gblhi Tartanga, zine eskolek ate zabaletako jardunaldia antolatuko dute azaroaren 6an, ostiralean. Nahi duten partaide guztiak joan ahal izango dira bertara, gidoi moduan idatzitako proiektuarekin, talde teknikoaren eta artistikoaren bila. Eskolen helbideak, ordutegiak eta kontaktuak:

Kinema Zineskola – c/ Luzarra nº14-16, 1ºDch 48014 Bilbao - 946559848 – Jorge Barrio – 9:00 eta 20:00 artean.

Imval – c/ Luzarra nº 10 – 48014 Bilbao - 94 4756078 – Iñaki Irastorza. 9:00 eta 20:00 artean.

Iefps Ategorri-Tartanga, c/ Tartanga nº11-15, 48950 Erandio - 944675311 –
Ikusentzumenezko departamentua Toño – 9:00 eta 14:00 artean.

VI. BALDINTZAK

Izena emandako film laburrek honako baldintzak bete beharko dituzte onartuta izateko:

- a. Laburmetraia aurretik adierazitako gaian oinarritu beharko da, nahiz eta zeharka izan. Generoa askea da.
- b. Laburmetraiak 3 eta 10 minutu artekoak izango dira, Kreditu Tituluak barne.
- c. Kanpoaldeko lekuen %100 Bilboko Udalerrian errodatua izan beharko du.
- d. Laburmetraiak DVD formatuan entregatuko dira.
- e. Laburmetraiak Window Media CD formatuan entregatuko dira.
- f. Errodajea eta laburmetraien muntaia parte-hartzailearen pentzura izango dira.

VII. EPEAK

Izena emandako laburmetraiak 18:00 eta 20:00 artean entregatu beharko dira azaroaren 16an izena eman zen El Ensanche Merkatu berebean, DVD eta Windows Media CD formatuan, laburmetraia eta parte hartzaile edo ordezkariaren izenarekin.

VIII. AURRE HAUTAKETA ETA HAUTAKETA

Laburmetraiek aurre hautaketaren lehenengo fase bat pasako dute. Fase honetan epaia hartzen duen batzordea aurretik aipatutako zine eskolen kideez osatuta egongo dira.

Epai-mahai batek baloratuko ditu hautatutako laburmetraiak eta irabazleak aukeratuko ditu. Hautatutako lanak azaroaren 20an emango dira, ostirala, El Ensanche Merkatuan. Bertan sarituen berri emango da.

IX. SARIA

Hauek izango dira film laburren lehiaketaren sariak:

- 600 euroetako 1. sari bat
- 300 euroetako 2. sari bat